




GR38

Ardoaren eta arrainaren ibilbidea



urdaibai
basque reserve



URREMENDI
LANDA GARAPENA



**BILBAO
BIZKAIA**
be basque




Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



Aurkibidea

- > Ardoaren eta arrainaren ibilbidea
- > GR 38
- > Ibilbidea Urdaibain
 - > 6.etapa. Durango-Gernika
 - > 7.etapa. Gernika-Bermeo
- > Urdaibaiko produktuak
- > Informazio interesgarria






Ardoaren eta arrainaren ibilbidea, mandazainek eta merkatariek Bizkaiko arrantza-portu nagusien eta Arabar Errioxa artean antzina egiten zuten ibilbidea zen, produktu horien eta beste batzuen merkataritzarako.


Egunero ateratzen ziren mandazainak Bermeotik, gurdi eta mandoak Erdi Aroko dietan oinarritzko produktuak ziren arrain freskoz eta gaziz beteta. Sardinak, bisiguak, sardinzarrak eta bakailaoa ziren barnealdeko merkatuetako ohiko arrainetako batzuk.

Itzuleran, mandazain haiek beste produktu batzuk garraiatzen zituzten, hala nola, garia, gatza edo Arabar Errioxako ardo preziatua. Izan ere, ardo hau txakolina baino askoz hobea eta garestiagoa zen. Txakolina zen garai hartan Bizkaian ekoizten zen ardo gaztea.





GR38



GR 38ak hegoaldeetik iparraldera zeharkatzen du gure lurraldea, komertzio bide zaharrari jarraituz, bere 8 etapetan zehar.

Lehen 4 etapetan, ibilbideak Araba zeharkatzen du. Oionetik abiatuta ibilbidea leku zoragarrietatik igarotzen da; Toloño mendizerra, Ayuda ibaiko haitzartea, Trebiñoko labar-elizak, Gasteizko mendiak edo Uribarri-Ganboako urtegia, besteak beste.

Otxandiotik sartzen da Bizkaian eta Urkiolako parke naturala zeharkatu ostean Durangora heltzen da. Uri eder hori zeharkatu ostean ibilbidea adarkatu egiten da, ibilbide historikoak egiten zuen bezala Bizkaiko 3 portu nagusietara heltzeko (Bermeo, Lekeitio eta Ondarroa). Bermeo zen garai hartan portu nagusia eta hara doa ibilbidearen ardatz nagusia.



Info +






Bideoa ikusi



Ibilbidea Urdaibain

Bermeora bidean, azken bi etapatan, Urdaibaiko Biosfera Erreserba zeharkatzen du GR 38ak, Turismo Jasangarriaren Europako Gutunari atxikitako natura-gune ederra.

Mauma eta Bermeo artean ibilbideak auzo, herri eta bazter ederrak eta hauen ondare aberatsa erakutsiko digu.



6. ETAPA

DURANGO . GERNIKA-LUMO



7. ETAPA

GERNIKA-LUMO . BERMEO



6. etapa

Durango - Gernika

Km

29,7



840m



8h

Durango eta Gernika-Lumo batzen ditu GR 38aren 6.etapak.

Maumeko portalea da eskualdeko sarrera historikoa, bi eskualdeak batzen zituen pasabide historikoa. Maumetik Oiz aldera igotzen zen bide zaharra ostean eta Astakurutzeko kartzada zaharra da horren lekuko, ostean Ganberantz jaisten zena. Ganbe eta Albiz artean, ibilbideak Golako arroa gurutzatu eta erreka bazterrean dagoen Ikadia errota ederra erakusten digu.

Ederra da Albiz bere ermita, iturri, dorretxe, jauregi, baserri, labadero, iturriarekin. Ederra da ere Mendaturira bidean ibilbideak eskaintzen digun eskualdeko ikuspegia.


Mendatako Elexaldeko San Migel elizaren edertasunaz gozatu ostean Lamikiz auzora helduko gara, jarraian Berrekondo erreka bazterrera jaisteko. Kanpantxu zeharkatuko dugu Gernikara iritsi aurreko azken tartean.



Fitxa teknikoa

6.etapa Durango -Gernika

- Hasiera: Tabira (Durango)
- Amaiera: Villa Argentina (Gernika-Lumo)



OHARRA: Hauek dira datuak ibilbidea Maumatik abituz gero:

Km

19,3



590m



6h



Bidezidorren zailtasun teknikoa eta eskakizun fisikoa neurtzeko metodoa (balioak, txikienetik handienera: 1-5)

2



2



3



4






Track



Wikiloc



GERNIKA-LUMO




0 1 km



Oka

Txaporta



Kanpantxu



Aristieta

Ibai sistema
Red fluvial





Berrekondo

Lamikiz



ELEXALDE
MENDATA



Mendaturi

Golako




ALBIZ



Ibai sistema
Red fluvial



Ikadia




Ganbe



MAUME

Astoaga



Astoagana
(801 m)



San
Kristobal



Oiz
(1026 m)

Oromiño









Maumeko portalea

DURANGOra



Maumeko portalea

Durangaldetik Urdaibaira sartzean ongietorria ematen digu Maumeko portaleak. Gure kostaldeko portu nagusiak eta barrualdeko merkatuak lotzen zituen galtzada historikoaren (XVI. mende ingurukoa) zatirik zaharrenetakoa da hemen ikusi ahalko duguna.









Interes puntua



Maume

Landa-auzoa da Muxikako Maume auzoa. Garai batean Durangaldetik Busturialdera zihoan bide nagusiaren alboan egon bazen ere, gaur egun errepide nagusienetatik urrun dago. Behar bada horregatik gorde du landa auzoek duten xarma.

San Lorentzo ermita dago herrigunearen erdian, errepublika garaian eraiki ziren auzo-eskolen aurrean. Hauen alboan, auzoko iturri-labadero ederra ere badago.








Herrigunea



Ganbeko elurzuloa

Funtsezkoa izango zen garai batean izotzaren produkzioa arrainaren kontserbazio eta garraiorako.

9 metroko sakonera eta 5,8 metroko diametroa ditu elurzuloak, eta XVII. eta XVIII. mendeetan izan zen gehien bat erabilia. Orbelarekin banatutako elur geruzak izotz bihurtzen ziren eta hau elikagaiak kontserbatzeko eta medikuntzan sukarrari aurre egiteko edo mina arintzeko erabiltzen zen, besteak beste.



Interes puntua




Golako erreka

Urdaibaiko ibai-sarea Kontserbazio Bereziko Eremuen (KBE) parte da, Natura 2000 sarearen barruan.

Errekak funtsezkoak dira Urdaibaiko Biosfera Erreserban, ur iturri nagusiak izateaz gain eskualdean bizi den faunarentzako korridore ekologikoak direlako. Aberatsa da ibai ertzeko basoa, ibar basoa.

Ederra da Golako erreka, goialdeko ibilguaren zonalde honetan.









Interes puntua



Ikadiako errota

Urdaibaiko ibai sarea ur emari handikoa izan da beti. Hori dela eta, asko izan ziren gure eskualdeko ibai ertzetan altxatu eta martxan jarri ziren burdinola eta errotak.

Ikadiako errotak oraindik mantentzen du arto zein gari irina ehotzeko erabiltzen zuen makinaria.




Interes puntua



Albiz

Landa-auzoa da baita Mendatako Albiz. GR 38tik apur bat desbideratu eta merezi du Albizko auzune nagusia bisitatzea. Albizko dorretxe zaharraren inguruan sortu zen auzoa. Erdi Aroan leinuen boterearen adierazgarri zen dorretxearen aurriak baino ez dira geratzen gaur egun. Auzoan zehar Albiztarren jauregia, XVIII. mendekoa, Maria Magdalenaren eliza, hainbat baserri deigarri, iturria eta garbitokia mantentzen dira, besteak beste.









Herrigunea



Elexalde-Mendata

Mendatako herrigune nagusia da Elexalde. Deigarria da auzoaren erdian dagoen San Migel eliza, gotiko-errenazentista estilokoa, X. mendean eraikia eta XVI. mendean handitua. Arte ale ederrak ditu elizak alboan eta hauen itzalpean Ameriketara joandako artzainen omenezko oroigarri txikia aurkituko dugu.

Frontoia, probalekua, udaletxea eta Idatze-etxea dira auzoko beste leku interesgarri batzuk. Idatze-etxean dago taberna eta alboan aisialdirako gune derra.









Herrigunea



Lamikiz

Lamikiz auzoaren bihotzean, San Joan eta San Lorentzo ermita ederra dago. Badirudi gaur egunera heldu den eraikina XVII. mendekoa dela, baina bere hormetako batean leiho bitxia mantentzen du, mila urtetik gorako leiho aurre erromanikoa, aurretik auzoan egongo zen ermita zaharrago baten lekuko mutua.



Herrigunea



7. etapa

Gernika - Bermeo

Km
19,2


330m


5h 30´

Gernika-Lumotik, Foru aldera errege bide zaharraren ibilgua jarraitzen du GR 38ak. San Kristobal ermita eta Urdaibai dorrearen artean igaro ostean, harrobiraino jaitsi eta Upeta ibaiaren paraleloan doan bidea hartuko dugu, Karabizurietara heltzeko. Karabizurieta auzoa zeharkatu eta mendian behera egingo dugu Altamirara jaisteko.

Altamiratik Goierrira igotzeko Mapen ur-gora egingo dugu lehenik, Alarbin errota albotik igaro ostean Sorbituagara igotzeko. Goierrira bidean Sorbituagako irunarria ezagutzeko aukera izango dugu.

Goierritik Katillotxura igoko gara eta mendi honetan bertako trikuharri multzoa ezagutu ahalko dugu.


Katillotxutik Bermeora jaisten den bidea Demiku auzotik igarotzen da. uri zaharreko portu ederrak ongi etorria emango digu.



Fitxa teknikoa

7. etapa Gernika - Bermeo

- Hasiera: Villa Argentina (Gernika-Lumo)
- Amaiera: Lamera parkea (Bermeo)



Bidezidorren zailtasun teknikoa eta eskakizun fisikoa neurtzeko metodoa (balioak, txikienetik handienera: 1-5)

2



2



2



3




Track



Wikiloc





BERMEO

Kantauri
itsasoa

Demiku

Katillotxu
(336 m)

Urkiobe

Pakotene

Goierri

Axpe

BUSTURIA

Altamira

Sorbituaga

Mape

Alarbingoikoa

Ibai sistema

**San Kristobal
(Busturia)**

Artadia

Axbiribil
(354 m)

Karabizurieta

Upeta

Baldatika

Ibai sistema

Atxeta

**San Kristobal
(Forua)**

Oka






**GERNIKA-
LUMO**



Gernika-Lumo

Gernika-Lumo historia paregabea eta berezko xarma duen hiribildua da. Bidegurutze garrantzitsua izan zen iraganean, eta horregatik merkataritza-gune gisa nabarmendu zen.

Eriako lorategiak dauden lekuan egiten zen antzina animalia azoka eta pasealekuan batzen ziren inguruko herrietatik etorritako baserritarrak, bere produkturik onenak saltzeko. Egun, astelehenero azokan eskuratu ahal dira kalitatezko produktuak (barazki, ortuari, fruitu, gazta, ogi...).









Herrigunea



San Kristobal

Armotxerri auzoan dago San Kristobal ermita ederra. XV. medearen bukaerakoa da. 2020an egin ziren azken zaharberritze lanak eta bertan kristo aurreko hilarri bat agertu zen. Uztailean ospatzen da bertan, San Kristobal egunez, meza eta erromeria.









Interes puntua



Urdaibai dorrea

Gernika eta Bermeo arteko Errege Bidearen alboan eraiki zuten Erdi Aroan, muino baten gainean, zeinetatik bidea eta itsasadarra kontrolatu zezaketen. 1929ko sute baten ondoren suntsitu zen dorretxea.

Dorre hau da Biosferako Erreserbari izana eman ziona: Urdaibai (basurdeen ibaia).









Interes puntua



Atxetako koba

Koba honen barruan aurkitu zuen 1959an Barandiaranek historiaurreko aztarnategi bitxia.

Atxetako aztarnategia sukarri lantegia izan zen. Bertan, ingurutik zein urrutiagoko puntuetatik ekarritako sukarritik abiatuta tresna desberdinak egiten ziren: xixelak, harraskagailuak, puntak...









Interes puntua



Upeta erreka

Upeta da Baldatika erreka-ren ibaiadarretako bat. Bi ibaien urak bat egin eta lasai asko egingo dute itsasadararrera heldu aurreko ibilguaren azken zatia.

Ur behera padurarekin bat egin arren, Upetak salto biziak eta tarteka erriberako baso ederrak erakusten dizkigu, arro honen goialdean. Ez da arraroa ura edatera datorren orkatzen bat edo basurde, azkonarren edo katajineten aztarnak ikustea.








Interes puntua



Altamira

Busturiko 4 auzoetako bat da Altamira. Mape ibaiak zeharkatzen du herrigune nagusia, baserri ederrek osatutako landazabalak inguratzen duena. Erreka honek izan zituen hainbat errota, burdinola...

Altamirako plaza da auzoko alkargune eta eraikin ederrenen kokaleku: San Migel eliza eta bere aterpe ederra, auzo eskolak, frontoia... Plazan dago auzo-iturri ederra ere.








Herrigunea



Alarbingoikoa

Lehendabizi burdinola izan zen, eta gero errota; ostean argi indarra sortzeko eta kaolina ehotzeko ere erabili izan zen. Burdinolek XVIII. mendetik aurrera izandako gainbeheraren ondorioz egin beharreko aldaketen adibide ona da, beraz.

Ederra da ubide eta andapara. Ezin da bere barrualdea bisitatu, baina egoera onean kontserbatzen ditu errotaren elementuak.



Interes puntua




Sorbituagako iruinarria

Añetu mendiaren magalean kokatua dago Sorbituaga-Arriatarako iruinarria.

Hau da gure eskualdean babestuta dauden elementu megalitikoetako bat, Katillotxuko multzo megalitikoaren parte dena.

Iruinarria forma luzenga duen harlauza izaten da, zutik jarritakoa. Dirudienez lurraldea markatzeko mugarri gisa erabiltzen zen edo mugarri sinboliko erritual gisa.



Interes puntua



Goierri

Larrago da Goierriko baserri eremuetako bat. Bertan dago Larrazabaleko auzo-eskola, gaur egun auzo-museo txikia bihurtu dena baina garai batean inguruko baserrietako hainbat umeren eskola izan zena.







Iturri ederra izan zuen Larragok, Eperlandatik hurbil, garai batean sorginen bilgunea izan zena. Akelarreak egiten ei zituzten bertan.



Katillotxuko multzo megalitikoa

Megalitismoak izaera monumentala duten zenbait irudikapen arkitektonikoren multzo anitza da. Multzo horretakoak dira Katillotxuko tontorrean dauden trikuharriak, talde ehorzketetarako erabiltzen zirenak. Hileta ganbara, orohar, harri edota lurrezko tumulu batek babesten zuen.

Pakoteneko tumulua eta Katillotxuko trikuharri eta tumuluak ezagutzeko aukera eskainiko digu GR 38ak mendilerro honetan.








Interes puntua



Demiku

Demiku Bermeoko barrualdeko auzoetako bat da. Bermeo portuari lotuta irudikatzeko ohitura izan dugu baina baserri ederrez osatutako auzo asko daude Bermeon, horien artean Demikuko hau.

Zarrane, Errenta, Beitia, Fradua, Txomekane, Etxebarri, Uriartebekoa, Uriartegoikoa, Justu, Tontorre eta Errosape dira Demikuko baserri ederrak eta horien artean eraiki zuten antzina Kandelarioko ermita txiki ederra (Kandelarijje).



Herrigunea



Bermeo

Bermeo Bizkaiko Jaurerriaren buru izatera iritsi zen, baita Kantauri isurialdeko portu nagusietako bat ere. Ibili alde zaharreko kaleetan barrena eta gozatu haren historiaz, gastronomiaz eta edertasunaz.






Bisitatu kofradia Bermeoko neskabilen eskutik eta kontserberak. Bertan hegaluzea, bokarta eta itsasoko beste produktu batzuk zelan ontziratzen dituzten ikusi ahal izango duzu. Joan gero Arrantzaleen Museora eta arrantzaleen bizitzari, lanari eta itsas tradizioari buruzko guztia ezagutu ahalko duzu.



Portu zaharra

Bermeoko portu zaharrak oraindik gordetzen du gure kostaldeko portuen xarma. Erdi Aroan Bizkaiko portu nagusia izan zen. Horren inguruan eraiki ziren arrantzaleen etxeak, kofradia, iturri publikoa eta Ertzillatarren dorretxea, besteak beste.

Antzinako arrantzaleen lonjetan gaur egun denda eta eskaintza gastronomiko zabaleko tabernak aurkitzen ditugu.









Interes puntua



Arrantzaleen museoa

Bermeoko Portu Zaharrean Ertzilla Dorre historikoa altxatzen da. 1943. urtean Monumentu Nazional izendatutako eraikin hau Arrantzaleen Museoaren egoitza da 1948. urtetik.

Mundu osoko museo bakarretakoa da, non bisitariak euskal arrantzaleen bizitzari, lanari eta arrantzari dagokion guztia ezagutzeko aukera duen.




Interes puntua





Urdaibaiko produktuak








Gure azokak

Gernika-Lumo

Erdi Aroan Gernikako uria sortu zenetik merkataritza-gune gisa nabarmendu izan da.

Ez ezazu galdu astelehenetako merkatu tradizionala, ezta urriko azken asteleheneko azoka berezia, Euskal Herri guztian ospe handikoa. Baduzu baita larunbat askotan ospatzen den azoka berezietara joateko aukera ere.

Eraman etxera garaiko eta tokiko produktuak. Ez dago gauza hoberik!



Gure azokak

Bermeo

Gatzetan, kontserban, fresko...
Arraina beti gozo.


Arrantzaleak, saregileak, arrain
saltzaileak, kontserbagileak...
Emakume eta gizonezko hauen
guztien lana premiazkoa izan da
gure etxeetara arraina modu batean
edo bestean heltzeko.

Ez ezazu galdu Bermeoko Arrain
azoka, urtero maiatzean ospatzen
den feria berezia, itsasoaren arima
eta produktuak gure eskura ekartzen
dituena.



Urdailife





Gure ardoak










Txakolin Upategiak Urdaibaian

Antzina antzinatik egiten da txakolina gure eskualdean. Hau da gure ardoa, garai batean Errioxako ardoarekin ezin lehiatu izan zena, baina gaur egun ardorik onenen artean dagoena.



Berroja





Gure ardoak

Itsasmendi








Talleri berria



Amunategi



AMUNATEGI
TXAKOLINA
Desde el año 1.812











Gure kontserbak



Urdaibaiko
kontserbak

Kantauriko antxoa eta hegaluzea dira gure kontserba-fabriketako altxorak. Bertan uztartzen dira tradizioa eta jarduera ekonomikoa. Ez ezazu galdu kontserba-fabrikak bisitatu eta kontserbarik onenak erosteko aukera!

Arroyabe





Gure kontserbak




Campos



Serrats



Zallo





Informazio interesgarria





Prestatu aurretik zure bidaia



TURISMO URDAIBAI URREMENDI

946 257 609

www.turismourdaibai.com
urremendi@urremendi.eus

GERNIKA-LUMOKO TURISMO-BULEGOA

Artekale, 8

94 625 58 92

www.gernika-lumo.eus

turismo@gernika-lumo.eus



MUNDAKAKO TURISMO-BULEGOA

Joseba Deuna, z/g

946 177 201

www.mundakaturismo.com

turismo.mundaka@bizkaia.org



BERMEOKO TURISMO-BULEGOA

Lamera, z/g

946 179 154

www.bizibermeo.eus

turismoa@bermeo.eus





Urdaibai kotzerik gabe

MUGIKORTASUN JASANGARRI BATEN ALDE

Aparkatu ezazu autoa eta goza ezazu
Urdaibaiko paisaia zoragarriaz oinez,
bizikletan edota garraio publikoa erabiliz.

BISKAIBUS

www.bizkaia.eus/es/web/bizkaibus
94 612 55 55



EUSKO TREN

www.euskotren.eus
94 433 33 33



URDAIBAI SOSTENIBLE

Para ti, que entiendes que
Urdaibai es un destino sostenible.
Conoce, respeta y disfruta!



Urdaibai



Bueltatuko zara

